



DURANGOKO UDALA

GIZARTE EKINTZA SAILAREN ZERBITZUAK



DURANGO
Urbia • Ayuntamiento

1.- NOR GARA

Immigrazioa

Nazioarteko migrazioa izaera globaleko errealitate multidimentsionala da, eta eragin handia du tokiko eremuan. Izan ere, udalerrria da bizikidetza-harremanak gertatzen diren gunea, eta bertan politika eta ekintza-plan zehatzak formulatu behar dira hiriaren ikuspegi integrala kontuan hartuz.

Immigrazioaren eta aniztasunaren kudeaketa publikoak zeharkako eta dimentsio anitzeko politikak bultzatzea dakar. Helburua gizarte-kohesioa eta bizikidetza hobetzea da, eta atzerritarrak bizitza sozialean, kulturalen, ekonomikoan eta politikoan sar daitezen bermatzea. Horretarako, desberdintasunak kudeatzeaz gain, eskubideak eta erantzukizunak eskuratzeko berdintasunaren kudeaketa ere ezinbestekoa da.

Durangoko Udaleko Immigrazio Sailak migratzaileen integrazioaren erronkari aurre egingo dio, ardatz hauetan oinarritutako neurriak hartuz: harrera, integrazioa eta bizikidetza.

2.- HELBURUAK

Durangoko Immigrazio Arloak hainbat programa, ekintza eta proiektu garatzen ditu bi ardatz nagusitan:

A) Atzerritarren harrera- eta integrazio-prozesuetarako laguntza:

Etorkinari ingurunean modu autonomoan moldatzeko beharrezkoak diren trebetasunak garatzen laguntzea da asmoa, oinarrizko gizarte-baliabide eta -zerbitzuetarako sarbidea errazteko eta gizarteratzea eta laneratzea ahalbidetzeko.

1. Herritar guztientzat eta, bereziki, etorkinentzat interesgarria izan daitekeen administrazio-baliabide eta -izapideei buruzko informazio argia eta egituratua ematea.

2. Kulturarteko komunikaziorako eta bitartekaritzarako baliabideak ematea.

3. Atzerritarren alfabetatze eta hizkuntza ikaskuntzako prozesuan laguntzea.

4. Etorkinen harrera eta gizarteratze prozesuak erraztea, bertako pertsonekin loturak sortuz.

5. Atzerritartasunari buruzko informazioa eta orientazio juridikoa ematea.

6. Aukera berdintasuna eta integrazioa bermatzea gizarteko eremu espezifikoetan (hezkuntza arloan, lan arloan eta osasun arloan).

b) Kultur aniztasunaren kudeaketa tokiko esparruan:

Sentsibilizazio-programa espezifikoak garatuko dira, elkar ezagutzea eta bertako biztanleen eta atzerritarren arteko etengabeko interkazioa bultzatzeko. Modu berean, herritarrek kultura-aniztasunaren gaineko pertzepzio positiboa izatea lortu nahi da.

1. Immigrazioaren irudi positiboa eta normalizatzailea eraikitzen laguntzea, eskola- eta komunitate-eremuan sentsibilizazio-ekintzak eta -programak garatuz.

2. Herritarren parte-hartzea sustatzea kulturen arteko bizikidetza bultzatzen duten jardueretan, esku-hartze komunitarioko eta toki-garapeneko programak sustatuz eta sendotuz.

3. Etorkinek udalerriko bizitza sozialean eta kulturean parte har dezaten bultzatzea.

3.- ARLOKO ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK

ZERBITZUA	KOKALEKUA	HARTZAILEAK		PREZIO PUBLIKOA/TASA
<i>Baliabideen gida: www.durangonbizi.net</i>	Udalaren webgunea	Herritarrak		Tasarik gabe
<i>Atzeritartasunari buruzko informazioa eta banakako orientazioa.</i>	Durangoko Udala	Etorkinak eta haiekin lotura duten bertako pertsonak		Tasarik gabe
<i>Taldeko informazio saioak</i>	Elkartegia	Etorkinak eta haiekin lotura duten bertako pertsonak		Tasarik gabe
<i>Nazionalitateko azterketak prestatzeko taldea</i>	Udal Liburutegia	Nazionalitatea lortzeko prozesuan dagoen biztanleria migratua		Tasarik gabe
<i>Etorkinentzako aktibazio komunitarioko programa.</i>		Adin nagusiko pertsona migratzaileak		Tasarik gabe
<i>Berariazko esku-hartzea emakume etorkinekin.</i>	Andragunea	Adin nagusiko emakume migratzaileak		Tasarik gabe
<i>Euskara indartzeko programa ikastetxeentzat</i>	Oinarrizko Lanbide Heziketaren Udal Institutua	Ikastetxeak		Tasarik gabe
<i>Bikote linguistikoak: "Hitz Egidazu".</i>	Espazio publikoa (Bizenta Mogel Liburutegia, parkeak,...)	Adin nagusiko pertsona migratzaileak Bertako adineko pertsonak		Tasarik gabe
<i>Emakumeen Mutilazio Genitala ekiditeko programa.</i>	Andragunea	Afrikatik datozen emakume eta gizon migratzaileak		Tasarik gabe
<i>Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako astea.</i>	Aldakorra jardueraren arabera	Herritarrak		Tasarik gabe

<i>Ikastetxeei zuzendutako sentsibilizazio programak: zinema gelak, prestakuntza eta irratitailerrak eta Booktrailer lehiaketa.</i>	Ikastetxeak	Ikastetxeak		Tasarik gabe
<i>Denboraren Bankua Durangon</i>	Aldakorra jardueraren arabera	Herritarrak Adin nagusikoak		Tasarik gabe
<i>Aniztasunaren Eskola.</i>	Elkartegia	Herritarrak Adin nagusikoak		Tasarik gabe
<i>Giza Biblioteka</i>	Bizenta Mogel Liburutegia	Herritarrak Adin nagusikoak		Tasarik gabe
<i>Gazteak eta immigrazioa</i>	Aldakorra jardueraren arabera	Gazte migratzaileak eta ez-migratzaileak		Tasarik gabe

4.- HARREMANETARAKO

ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEFONOA	POSTA ELEKTRONIKOA
Immigrazio Saila	Zeharkalea, 3. 48200. Durango	94 4657091	immigrazioa@durango.eus

1. NOR GARA

Adineko pertsonak

Adineko pertsonak gero eta ugariagoak dira gure gizartean, eta haien batez besteko bizi-itxaropena handitu egin da. Egoera demografiko, sozial eta ekonomiko horri erreparatuta, ezinbestekoa da pertsona nagusientzako esku-hartze ildoak, programak eta jarduketa desberdinak garatzea.

2. HELBURUA

1. Adinekoen zahartze aktiboa, osasungarria, parte-hartzailea eta integratzailea sustatzeko behar diren programak eta ekintzak garatzea.

2. Zaurgarritasun egoeran dauden adineko pertsonen autonomia sustatzea, balizko mendekotasun egoerak atzeratuz eta ohiko ingurunean ahalik eta denbora luzeenean egoteko aukera emanez.

3. Adinekoen parte-hartze soziala sustatzea boluntarioen bidez.

4. Adineko pertsonen elkarte-sarea bultzatzea.

5. Belaunaldien barneko eta arteko harreman-sareen komunikatzea eta indartzea ahalbidetzea.

6. Adineko pertsonen irudi positiboa zabaltzen laguntzea, parte-hartzeari, prestakuntzari, elkartasunari eta abarri lotuta, eta okerreko estereotipo negatiboetatik urruntzea.

3. SAILEKO ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK

ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK	AZALPENA	HARTZAILEAK	KOKALEKUA	PREZIO PUBLIKOA/TASA
Zahartzeari buruzko informazioa eta orientazioa, eta adinekoentzako baliabideak	Zahartze prozesuari lotutako jardueren eta zerbitzu propioen edo Udaleko edo beste entitate batzuetako zerbitzuen inguruko informazioa	Adineko pertsonak Herritarrak	Adinekoen zentroa	Tasarik gabe
Ikastaro eta zerbitzuetako arreta, izen ematea eta matrikulazioa	Izen-emateen kudeaketa eta alten, bajen eta abarren segimendua	Adineko pertsonak	Adinekoen zentroa	Tasarik gabe
Elkarteen mugimendu ofiziala bultzatzea	Adinekoen arloan lan egiten duten elkarteen arteko harremanaren kudeaketa eta haien segimendu jarraitua	Adineko pertsonen elkartek	Adinekoen zentroa	Tasarik gabe
Zahartze aktibo eta osasungarria sustatzeko programa	Adinekoentzako ikastaro eta tailerrak: -Aisialdi aktibo, osasungarri eta pedagogia parte-hartzailea eskaintzeko. - Zahartze prozesu egokia izateko beharrezkoak diren prebentziozko jarrerak (fisikoak, kognitiboak eta emozionalak), prestakuntzakoak, kulturalak, pertsonen artekoak edo teknologikoak ahalbidetzeko.	60 urtetik gorako pertsonak	Adinekoen zentroa eta bestelako Udal instalazioak	14 euro ikastaro luzeetan 7 euro ikastaro laburretan Erroldatu gabeek %50eko errenergua
8.0 programa. Adineko pertsonen autonomia pertsonala bultzatzen duen programa, etxean ahalik eta denbora luzeenean egon ahal izateko - Arreta psikosozialeko tailerrak - Hurrean bizi programa	Tailer hauetan, profesional baten zuzendaritzapean, gaitasun fisikoak, psikikoak eta kognitiboak, gaitasun emozionalak eta pertsonen arteko harremanen sarea sustatzen dira.	Zaugarriak diren adineko pertsonak (80 urtetik gorakoak, gutxi gorabehera)	- Adinekoen zentroa - Auzoak: Aramotz, San Fausto, Magdalena	Tasarik gabe
Lagunkide programa	Boluntarioen parte-hartze soziala sustatzen du, bakarrik bizi den adinekoari modu erregularrean lagunduz edo lan zehatzak egiteko unean uneko laguntza eskainiz.	18 urtetik gorako herritarrak		Tasarik gabe
“Durango amigable con las personas mayores” programa	Prozesu irekia eta parte-hartzailea, hiriak adineko pertsonen ikuspegitik begiratzea ahalbidetzen duena. Talde sustatzaile baten laguntzaz, udalerria zein alderditan eta nola izan daitekeen adineko pertsonentzat lagunkoiena identifikatzen da. Ekintzak planteatu, garatu eta ezartzen dira.	Adineko pertsona guztiak	Adinekoen zentroa	Tasarik gabe

Esperientziaren institutua	Durangaldeko 55 urtetik gorako pertsonen elkartzeko gune bat eskaintzen die, beren prestakuntzarekin hainbat arlotan jarraitzeko eta iritziak eta esperientziak trukatzeko aukera emanez, gizartean aktiboki parte har dezaten.	55 urtetik gorako pertsona guztiak	Elkartegia	Tasarik gabe
<i>Dantzazdantza</i> programa	Igandeetan dantzaldia eskaintzen du, jarduera fisikoa eta pertsonen arteko harremanak sustatzeko.	Pertsona nagusiak	Landako I	Tasarik gabe
Adinekoen Nazioarteko Eguna	Adinekoekin eta adinekoengandik kolektiboaren ikusgarritasuna eta aldarrikapenak sustatzen dituzten jarduerak antolatzea.	Pertsona nagusiak eta elkarteak		
Jantokiko zerbitzua	Adineko pertsona autonomoek dituzten nutrizio-beharretara egokitutako janari orekatuak eskaintzen ditu udal-zentroko kafetegiak. Modu horretan, gizarte-harremanak eta bizikidetzak bultzatzen dira.	70 urtetik gorako pertsonak 65 urtetik gorako pertsona zaurgarriak		Prezioak pentsioaren araberakoak dira
Etkez etxeko janari zerbitzua	Adineko pertsonak dituzten nutrizio beharren araberako jaki orekatuak etkez etxe banatzea.	80 urtetik gorako pertsonak Mendetasun egoeran dauden 65 urtetik gorako pertsonak		Prezioak pentsioaren araberakoak dira
Taxilagun zerbitzua	Adineko edo mugikortasun murriztua duten pertsonen udalerrian mugitzeko aukera ematen die, prezio murriztuan.	76 urtetik gorako pertsonak Bizkaiko Foru Aldundiak ezgaitasun edo mendekotasun maila aitortua duten adinez nagusiak		2 euro
Suteei aurrea hartzeko zerbitzua	Zerbitzuaren xede diren etxebizitzetan ke-detektagailuak instalatzea eta arrisku-azterketak egitea.	80 urtetik gorako pertsonak, bakarrik edo bikotekidearekin bizi direnak (biak 80 urtetik gorakoak)	Adineko pertsonen etxebizitza	Tasarik gabe
Adinekoen behatokia	Udalerriko adineko pertsonen behar psikosozialei erantzuteko informazioa, azterketa eta deribazioa. Horretarako, etxean bertan inkesta bat aplikatzen da eta autonomia kognitiboa, fisikoa, emozionala eta soziala galtzeko arriskua duten egoerak identifikatzen dira.	80 urtetik gorako pertsonak, bakarrik edo bikotekidearekin bizi direnak (biak 80 urtetik gorakoak)	Adineko pertsonen etxebizitza	Tasarik gabe
Irisgarritasuna hobetzeko laguntzak	Durangoko udalerriko 75 urte edo gehiagoko pertsonen segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzea: -etxebizitzako instalazio elektrikoa -bainuontziaren ordez dutxa hartzea ahalbidetzea	Laguntza hauen baldintzak betetzen dituzten 75 urteko edo gehiagoko biztanleak.		Diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien araberako laguntzak

Giltzak udaltzaingoan uzteko zerbitzua	Etxebizitzako giltzen kopia bat udaltzaingoan uzteko aukera, arrisku-egoerak sortzen direnean eta adineko pertsonaren senideak bertan ez daudenean edo denbora laburrean bertaratu ezin direnean larrialdi zerbitzuak sartu ahal izateko.	Adineko pertsonak, bereziki bakarrik bizi direnak.		Tasarik gabe
Podologia zerbitzua	Kiropodia zerbitzua: Kirurgiarik gabe, hanketako higiene egokia izateko ohiko zainketa. Adinekoen osasuna helburu.	65 urtetik gorako pertsonak		Tasarik gabe
Kafetegi zerbitzua	Taberna zerbitzua eta eskaera bidezko meriendak antolatzeak aukera.	60 urtetik gorako pertsonak		

4.- HARREMANETARAKO

ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEFONOA	MUGIKORRA	POSTA ELEKTRONIKOA
Adineko pertsonen Saila	P.P. Astarloa, 1	94 465 74 51	680425761 630817454	alarreategi@durango.eus adintek@durango.eus